

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

“Dubai bilonia”: langileak greban hiri futuristan

XXI. mendeko proletarioak oldartu dira munduko herrialderik aberatsenetako batean. Pertsiar Golkoko Dubain, petrolioaren jabeek asmatutako hiri futurista eraikitzen ari dira Asia urrunetik ekarritako milaka obrero eta bizi baldintza hobekien eskatzen dituzte. Ez dakite Marx nor den.

ANTIGOALEKO GREBA BAT ikusi nahi baduzu, zoaz Dubaira. Hobeto, “Dubai bilonia”, Basta blogak *Journal de marche zapatiste* definitzen du bere burua— bataiatu duen moduan. “XXI. mendeko Babilonia berriak Dubai du izena. Golkoko emirerri petroliodun hau zoroaldi faraonikoan murgildu da eta amesgaizto klimatizatu bihurtzeko zorian dago. Burj Dubai izango da, Babilonia berria zaindako duen dorrea, sekula eraiki den luzeena. Solairu kopurua bera sekretuan daukate, lanak bukatu artio”. Hortxe lehertu da esklabuen errebolta.

Atzeritik ekarritako 10 milioi langilez goiti ari da Golkoko herrialde arabiarretan. Aste osoan gau eta egun ari diren behargin horiek 2005ean 30.000 milioi dolar bidali zituzten beren sorlekutara.

Duela hogeitaz urte obrero gehienak arabiarrek izan ohi ziren: Egipto, Yemen, Palestina, Irak edo Jordaniakoak. Baina Golkoko lehen gerraren ondotik, petrolio jabeek Asia urrunera jo zuten eskulan bila. Geroztik ugarituz joan dira India, Bangladesh, Pakistan, Sri Lanka eta Txinako etorkinak. Arabiar Emirerri Batuetan 1,5 milioi indiar ari omen dira beharrean, horien erdiak Dubain eta 300.000 Abu-Dhabin.

Rajasthan, Pendjab eta Andhra Pradesh estatuetatik modu ilegalean edo paper eta guzti trafikanteek ekarritako langileok, lehen belaunaldiko obreroak

dira: nekazaritza zuzenean indus-trian edo eraikuntzan murgildu dira. Egunean hamabi ordu gerriak puska-tzen aritu ondoren, hilean 93-131 euro kobratzen dute, ez gehiago. Berandu hasi dira ohartzen ziria sartu zietela, eta kontuak hobeto aterako zitzaizkie-la etxean geratuta.

Dubaiko agintariek joan den ekai-nean, paperik gabeak arauetan sartze-ko operazioa abiarazi zuten. Baimenik ez zuten langileei eskaini zitzaizen edo paper berriz legeztatzea edo Dubaiko ordainduta abioiz etxera itzultzea. 280.000k alde egitea hautatu zuten.

Eskulana urritu denean Dubain, langileak ohartu dira soldata hobeak eskatzeko aukera oraintxe zeukatela eta lehen mugimenduei ekin diete. Ugazabak berriz, behargin merkeagoen bila joan dira... Tibet eta Ipar Koreara! Horrela hasi dira urriko grebak.

Urrikoak, zeren eta ez lehenengoak. 2006ko martxo-apiriletan, Al Naboodah Laing O'Rourke korporazio-ko 2.500 obrerok, munduko dorre altuena izan behar duen Burj Dubai eraikitzen ari zirenek, lana utzi eta protesta karrikara eramane zuten. Haici egurra ematera bidali zizkieten polizietako asko ere etorkinak dira, yemendarrak.

2006ko greban ez zen gauza izugarria eskatzen. Soldata hobeak, orduan obrero arruntak eguneko 2,75 eta aro-tzak 5,25 irabazten zituzten eta. Bal-

Argazki txikia “mghabib” izeneko batek ipini du Interneten. Dubain orain eraikitzen ari diren dorreetako batzuk erakusten ditu. Irudi handia, berriz, ordenadorez egindakoa da: laster Dubai hiriak edukiko omen duen itxura ematen du. Erdian dagoena da Burj Dubai, munduko etxeorraz luzeena izango dena, dagoeneko nahikoa aurreratuta dagoena. XXI. mendeko Babilonia bailitzan. Ur tantarik nekez aurkitzen da Dubaiko basamortuan, baina lurpean petrolioak bai galanki. Urre beltz honen epelean, azpiegitura harrigarriak —eta oso garestiak— ari dira eraikitzen emirerri horretan. Turistek atera eta Interneten ipinitako fotoetan luxuz betetako Dubai hori baizik ezin da aurkitu. Proletarioek ez dute argazkietan ondo ematen.



dintzak hobetzea: sendagilea, ekipoburuek hobeto tratatzea.

Gero, apirilean, New Dubai portuko beharginak ere greban izan ziren. Hemen ere poliziarekin istiluak gertatu ziren, eta beti bezala arrestatuak kanporatu egin zituzten, “bortizkeria erabili izanagatik”.

Globalizazioaren oinezko soldaduak

Urri honen 27an hasi dira berriro zabal-tzen grebak Dubai bilonian. Jebel Ali-ko industrialdean eta Al Wusais Malibun auzo erresidentzialeko eraikuntzan piztu da protesta lehenbizi. Kalera beren eskariak haizatzea ateratakoan polizia oldartu zitzaizen langileei, eta iskanbilak izan ziren. Ikusi zein neurri-takoak: 4.500 obrero arrestatu zituzten poliziek. Hasieran denak kanporatuko zituela esan zuen poliziburuak, baina antza ugazabek erregutu zioten ez egi-teko holakorik, lanak bukatzeko presa handia dutela. Azkeneko 159 kanpo-ratu dituzte, horietatik 90 indiarak.

Mugimendu horrek emaitza mehea ekarri die protestariei. Libre utzitako beste 4.300ak beharrera itzuli dire-nean, Sonapur izeneko auzoan lotara-ko daukaten hiru solairuko etxearen atarian ohar bat aurkitu dute, ugaza-bak idatzia, non agintzen zaien laster bi mediku agertuko zaizkiela denen osasuna segurtatzeko, eta nagusiek pagatuko dutela logelen klimatizazioa, janaria berotzeko behar dituzten buta-



no bonbonak bezala. Soldata igotzeaz, ordea, hitz bakar bat ere ez.

Hurrengo lanuztea azaroaren 1ean lehertu da, Arabtech Construction Company-ren obretan. Huelgan atera dira 40.000 langile, hauetatik 10.000 Andhra Pradesh estatutik etorritakoak. Berdintsuak hauen eskariak ere: soldatak igotzea, egoitzetako bizibaldintzak eta garraioetakoak hobetzea, eta ekipaburuek edozein aitzakiagatik hileroko lansarietatik kentzen dizkieten isunak desagertzea.

Basta blogean informatu denez, oraingoan azkar erreakzionatu dute agintariek. Dubaiko Lan Ministerioak eta giza eskubideen zaintzeko Poliziak omen daukan kabineteak batzordea osatu eta grebalarien buruekin negoziatu dute. Eskaini dizkieten

hobekuntzen artean, gaixotasun aseguru bat ezartzea, paraieotan harritzekoa dena. Indiako diplomatikoelek ere sartu behar izan omen dute muturra aferan. Gainera, konpainiako buruzagiek hitz eman dute bi hilabete baino lehen soldatak handituko dituztela. Obreroak berriro azaroaren 3an hasi dira lanean.

AEBetako Yale unibertsitate famatuak *Yale Global On Line* izeneko agerkarian mundializazioari buruzko albiste, analisi eta ikerlanak biltzen ditu. Dubain langile indiarrek bizi duten egoera aztertu du bertan Steve Raymer irakasleak, *Dubai's Kerala Connection* artikuluan. Hizki handi horien ondoren, honela izkiriatu du: "Golkoko herrialdeen garapenak itzalean gordetzen ditu 'globalizazioaren

oinezko soldadu' indiarrek". Raymerrek zifra argiz erakusten du Indiak urteotan bizi duen hazkundearen portzentaje handi batean atzerria ari diren langileok etxera igortzen duten diruari zor zaiola. Milioika obrerook horrela ordaintzen dituzte nork bere zorrak, alabaren ezkontza, familiarrentzako etxea eta abar. Kerala bezalako estatu batean mugitzen den diruaren ia laurdena omen dator Pertsiar Golkora joandakoek bidalita. Antzera, India osoan.

Indiaren aurrerapena bezala Dubai hiperrabieraren garapena ere langileon eguneroko ahaleginak erabakitzen du. *International Herald Tribune* egunkariak idatzi du tituluan, grebak direla eta: "Pazientzia gutxiko langileek arriskuan ipini dute eraikuntzaren 'boom'a Dubain". Zorionez, gero hizki txikietan argitasunak ematen ditu "pazientzia gutxi" horretaz, langile baten deklarazioak bilduz: "Bizimodua hemen izugarri garestitu da eta nire soldatarekin ezin dut iraun" esan du 24 urteko Rajesh Kumar-ek: hilean 104 euro irabazten ditu... Dubain!

Basta blog zapatistaren egileak *Révolte à Dubaibabylone* artikulua hasieran Bertold Brecht-en "Langile baten galderak liburu baten aurrean" poema ipini du: "(...) Eta hainbatean porrokatua izan zen Babilonia, nork jaso zuen beste hainbestetan?" Burj Dubai inauguratuko dutenean, Mohammed bin Rashid Al Maktoumuke emirrak eraiki zuela esango dute historia liburuek, jaso zutenen izenik ez da inon azalduko ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



**Konfiantza
delako
garrantzitsuena**

Egunez egun
zure konfiantza
geureganatzen dugu,
etengabe produktu
berriak eta
zerbitzu berriak
bilatzearen bidez.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskainet.net
TEL. 943 420 624

G A R R A N T I A